

METODOLOGIA

“Bizitzan, jakintza baino baliotsuagoa da hori lortzeko egiten den bidea.” Rudolf Steiner

Jesuitak Indautxun gaitasunen araberako hezkuntzan oinarritzen gara. Horrela, metodologia aktiboak bultzatzen saiatzen gara, ikaskuntza-esperientziek eta bizipenek norberaren ezagutzak errazten baitituzte. Horregatik, dimentsio konstruktibista dugu abiapuntutzat, zeinek ikasleei gaitasuna ematen die beren ezagutzak beren bizipen eta esperientzietatik abiatuta eraiki ditzaten; dimentsio sozialak pertsonen arteko harremanak eta gaitasun emozionalen garapena bultzatzen saiatzen da, bizikidetzan, oreka pertsonala eta pertsonen artekoa lortzeko (Lehen Hezkuntzan, Barnealdekotasuna irakasgaia ematen dugu); eta, azkenik, dimentsio interaktiboa, hartu-emanak ingurune fisiko eta sozialera egokituz ikaskuntza handiagoa lortzeko.

Ikasleak ikasten duena bere esperientziarekin lotzen ikasten duenean motibazioa pizten dela eta ikasitakoa berezko bihurtzen duela uste osoa dugu gure ikastetxean. Horregatik, gure irakaskuntza-ereduan proiektuen araberako lana txertatzen dugu, non gure ikasleek ikertzen, ideiak aurrez aurre jartzen eta akordioak lortzen ikasten dute. Beraz, ekimen eredu honetan, pentsamendu kritikoa, sormena, errespetua eta lankidetzaren bidezko ikaskuntza funtsezko zutabe bihurtzen dira sozializazio- eta integrazio-balioak sustatzeko. Proiektuen araberako lan hori egiteko, oinarrizko hezkuntzako etapetako hainbat diziplinatan adimen anitzak ditugu oinarri. Gure irakasteko moduan pentsamendu-errutinak sartzen ditugu. Horrela, gure ikasleengan metakognizioa sustatzen saiatzen gara, pentsamendua garatu eta funtzio inkontziente hutsera mugatu ez dadin. Horrela, pentsamendu-prozesua ikusgarriagoa egiten da, jarraitzeko eta gogoratzeko errazagoa.

Gizarte globalizatu honetan zure seme-alabak hainbat hizkuntzatan erraz komunikatzeko gai izan daitezen funtsezkoa iruditzen zaigu hizkuntzak ikastea. Horregatik, gure hezitzaileek, zenbait baliabide metodologikotan oinarrituta, ikasleek euren hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna hobetzeko lan egin dute. Garapen hori erraztuko duen murgiltze bat helburu, etapa bakoitzak, eleaniztasunaren eta hizkuntzen arloan, ikaskuntza-esperientzia desberdinak eskaintzen ditu.

Azkenik, **Jesuitak Indautxun** hezkuntza-programa eta -batzordeetara atxiki gara (KiVA, Agenda 2030, Alboan, Ellacuría Fundazioa...), zenbait gaitasun sustatzeko eta, horrela, gure ikasleei sentsibilitate eta enpatia handiagoa emateko. Guzti hau, justizia soziala, bakea eta garapen jasangarriaren markoan kontzientzia ekologikoaren aldeko jokabideak sustatzeko.

INAZIOTAR PARADIGMA PEDAGOGIKOA

Jesusen Lagundiaren ikastetxe gisa, Inaziotar Paradigma Pedagogikoan oinarritzen dugu gure metodologia pedagogikoa. Loiolako Inazio Deunaren esperientzia espiritualetan oinarritutako eredu zirkular honek bost fase ditu:

TESTUINGURUA

Irakasleek pertsona bakoitzaren egoera eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua kokatzen den errealitatea ezagutzeko eta kontuan hartzea eskatzen du arreta pertsonalizatuak.

ESPERIENTZIA

Loiolako Inazio Deunarentzat, esperientziak "gauzak barrutik gustatzea" esan nahi zuen. Horrek eskatzen du konnotazioekiko eta ñabardurekiko sentikorra izatea; aztertzen ikastea, ideiak baloratzea eta arrazoitzea.

HAUSNARKETA

Ikasleen inplikazio gogoetatsua eragiten dugu, ikasten ari denaren garrantzia eta giza esanahia kontuan har ditzaten.

EKINTZA

Ikasleak barneko aukerak eta kanpoko ekintzak egin ditzaten bultzatzen ditugu, agertoki berrietan aurrera egiteko gai izan daitezen.

EBALUAZIOA

Etengabeko berrikuntza eta eraldaketa pertsonala eta kolektiboa ekarriko duen ebaluazio-kultura sustatzen dugu.
